



## ALDIZKARI OFIZIALA

### BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA

XII. AGINTALDIA

**Serie B** Información, control e impulso

Informazioa, kontrola eta sustapena **B Sailsa**

**XIX** Moción derivada de Interpelación

Itaunetik eratorritako Mozioa **XIX**

Número 31a (B-17-041a)

Bilbo, 2024ko abenduaren 5a  
Bilbao, 5 de diciembre de 2024

(B-17-041a) 31a alea

**ASUNTO:** Trazado y grado de avance del proyecto de la Línea 4 del Metro.

**AUTOR:** Méndez Urigoitia, Raul

#### Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 3 de diciembre de 2024, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.

**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor

**Órgano Destino de Tramitación:** Pleno

**Procedimiento de Tramitación:** Normal

**Plazos:**

Presentación enmiendas a moción derivada de interpelación: hasta 24 horas antes del comienzo de la sesión.

**Otros acuerdos**

Ordenar la apertura del plazo de enmiendas

Ordenar Publicación en el BOJJGG

Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable

Ordenar la inclusión de la iniciativa en la próxima sesión del órgano destino de tramitación

**Regulaciones:**

Reglamento: Artículos 164, 177 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 3 de diciembre de 2024.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

#### A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Raul Méndez Urigoitia, portavoz suplente del grupo juntero EH Bildu, presenta la siguiente MOCIÓN derivada de la Interpelación sobre el trazado y grado de avance del proyecto de la Línea 4 del Metro, para su debate en la próxima sesión plenaria.

#### JUSTIFICACIÓN

En la Sesión de Control celebrada el 27 de noviembre en la Casa de Juntas de Gernika, la Diputada General Etxanobe Landajuela señaló la necesidad de que el proyecto de la Línea 4 del Metro se realizara lo antes posible.

**GAIA:** Metroaren 4. Linearen proiektuaren trazadura eta aurrerapen maila

**EGILEA:** Méndez Urigoitia, Raul

#### Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiaik 2024ko abenduaren 3an izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea

**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Osokoa

**Prozedura:** Arrunta

**Epea:**

Itaunetik eratorritako mozioari zuzenketa-eskeak aurkeztekoa: eztabaidatu baino 24 ordura artekoa

**Beste erabagi batzuk**

Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintzea

BBNAn argitaratzeko agintzea

Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako

Ekimena organo izapide-hartzailearen hurrengo batzarrean sartzeko agintzea

**Araudi oinarria:**

Araudia: 164., 177. eta 92. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezkan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2024ko abenduaren 3an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri**.

#### BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIRI

Raul Méndez Urigoitia, EH Bildu batzarkide-taldeko bozeramaile ordeak, Bizkaiko Foru Aldundiari egindako Metroaren 4. linearen proiektuaren trazadurari eta aurrerapen mailari buruzko itaunaren ondorioz, ondoko MOZIOA aurkezten du hurrengo Osoko Batzarrean eztabaidatua izan dadin.

#### ARRAZOIKETA

Azaroaren 27an Gernikako Batzarretxean egindako Kontrol Bilkuran, Etxanobe Landajuela Ahaldu Nagusiak adierazi zuen metroaren 4. linearen proiektua ahalik eta lasterren egin behar zela.

Asimismo, indicó que el proyecto debía ejecutarse de forma adecuada, ya que esta infraestructura debe definirse con una visión a largo plazo, por lo que consideraba fundamental tomar todas las decisiones con el máximo rigor, analizando todas las posibilidades y las consecuencias de cada una de ellas. "Hay que hacerlo, sí, pero bien", fue la frase utilizada.

EH Bildu cree que también hay que hacer un análisis detallado de la posibilidad de realizar una conexión en la estación de Moyua. Este análisis debería tener en cuenta aspectos técnicos y económicos, así como la opinión de la ciudadanía, junto con los plazos para poner en marcha la Línea 4.

Por ello, formulamos la siguiente MOCIÓN derivada de interpelación, para su debate en la próxima sesión plenaria.

#### MOCIÓN

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia y al Gobierno Vasco a:

- Que haga una apuesta clara por la conexión de la Línea 4 con el resto de líneas de metro en Moyua, tras los análisis técnicos necesarios.
- Que la Línea 4 tenga conexión directa con el Hospital de Basurto y Encartaciones, aprovechando al máximo la infraestructura ferroviaria existente.
- Que agilice los trámites administrativos y los procesos de licitación, para poder ejecutar la Línea 4 del Metro lo antes posible.

Bilbao, 9 de diciembre de 2024

**Raul Mendez Urigoitia,**  
Portavoz suplente del grupo EH Bildu

Era berean, proiektua modu egokian gauzatu behar zela esan zuen, azpiegitura hori epe luzearako ikuspegi batekin definitu behar baita. Beraz, funtsezkoa zela erabaki guztiak zorroztasun osoz hartzea, aukera guztiak eta horietako bakoitzaren ondorioak aztertuta. "Egin behar da, bai, baina ondo", izan zen erabilitako esaldia.

Moyua geltokian konexioa egiteko aukeraren azterketa zehatza egin behar dela ere uste du EH Bilduk. Azterketa horrek kontuan hartu beharko lituzke alderdi teknikoak eta ekonomikoak, bai eta herritarren iritzia eta 4. Linea martxan jartzeko epeak ere.

Hori dela eta, hurrengo Osoko Batzarrean eztabaidatzeko itaunetik eratorritako MOZIOA egiten dugu.

#### MOZIOA

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete:

- 4. Linea Moyua gainerako metro lineekin konektatzearen aldeko apustu garbia egitea, betiere beharrezkoak diren analisi teknikoak egin ondoren.
- 4. Lineak Basurtuko Ospitalearekin eta Enkarterrekin zuzenean konektatzea, lehendik dagoen trenbide azpiegitura ahalik eta gehien aprobetxatuz.
- Administrazio izapideak eta lizitazio prozesuak arintzea, metroaren 4. Linea lehenbailehen gauzatu ahal izateko.

Bilbon, 2024ko abenduaren 9an

**Raul Mendez Urigoitia,**  
EH Bildu taldeko taldeburuordea